



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2012/13 Denboraldia

18. ZENBAKIDUN ZIRKULARRA

ESPANIAKO FUTBOLEKO ERREGE FEDERAZIOAREN KOPA FASE AUTONOMIKOA

Euskal Futbol Federazioaren esku utzi dituzte RFEF Koparen komunitate autonomo mailako fasea antolatzeko lanak, hori oinarri gisa hartuta eta, parte hartuko duten taldeen irizpideen arabera, aipatutako lehiaketarako ondorengo arauak ezarri dira.

1. Tade parte hartzaileak

Aurrera de Vitoria eta Zalla U.C.

2. Lehiaketa sistema

kanporaketa sistemaren bidez garatuko da lehiaketa.

3. Berdinketak

EFFren Araudi Orokorrak ezarritako moduan desegingo dira berdinketak.

4. Datak

Urriak 3 eta 17

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

5. Jardunaldiak eta partiden ordutegiak

Talde antolatzaileek ezarriko dute partida hasteko ordua aurreko egunetan, ordutegi horrek iluntzeko 19.00 eta 20.00ak artekoa izan beharko du, baina talderen batek ordutegi hori aldatu nahiko balu, aurkako taldearen onespena izan beharko luke eta ados dagoela idatziz jakinarazi beharko du.

Ordutegi hori, partida jokatu den zelaiaz gain, etxeko taldeak Euskadiko Futbol Federakundeari jakinarazi beharko zaio idatziz partida jokatu baino zazpi egun lehenago web orrian, posta elektronikoz edo fax 944732221. Horrez gain aurkako taldeari ere jakinarazi beharko dio.

6. Arbitrajeak

Hirugarren Mailako arbitroek zuzenduko dituzte partidak.

7. jokalarien zerrenda

Talde filialetatik edo mendekoetatik iritsitako jokalaria zerrendan sartzeari dagokionez, baimendutako gehieneko kopurua zortzi izango da.

8. Diziplinazko Araudia

Lehieketa hau RFEFren Araudiak zuzenduko du eta jazoera guztiak Hirugarren Mailako IV. Taldeko Epaille Bakarrak erabakiko du.

Txapelketa horri dagozkion eta gerta daitezkeen zigorrak konpartimendu estankoa osatuko dute eta ezingo dituzte beste txapelketa batzuetako zigorrak lehiaketa honetan bete ez eta alderantziz ere; zigor guztiak (arbitroari egindako eraso ezan ezik) Txapelketa horretan bete beharko da.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 3 -

9. Saria

Txapeldunak RFEFk emandako 3.005,06€ko sariari lehiaketako arbitraje gastu guztiak kentzetik eratorritako zenbatekoa eskuratuko du.

Jakinaraz dadin eta behar denerako jakinarazten da..

Bilbon, 2012 irailak 24



JON ANDER GAMBOA AGUIRRE
Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

EGUTEGIA / CALENDARIO

URRIAK 3EAN / 3 DE OCTUBRE

AURRERA DE VITORIA – ZALLA

URRIAK 17AN / 17 DE OCTUBRE

ZALLA – AURRERA DE VITORIA

-O-O-O-O-O-O-O-O-O-

-O-O-O-O-O-O-O-O-O-